

Laudio, 2021eko abenduaren 22a

Gobernu taldeak 2022rako ibilbide orria aurkeztu du

2022rako zehaztutako Plan Operatiboak 2019-2023 Legegintzaldiko Plana betetzeko bidean aurrera egitea aurreikusten du, eta urtearen amaierarako % 86ko aurrerapena espero da

Laudioko Udaleko Gobernu taldeak zehaztuta dauka 2022rako ibilbide orria. Plan Operatiboa da, eta bete beharreko helburuak zehazten ditu, bai eta 2019-2023 Legegintzaldi Planean jasotako laneko estrategiaren barruan ezarritako mugarren aurrerapenaren ehunekoa ere. Horrela, datorren ekitaldian, Laudioko Udalak batez ere bost ardatz estrategikotan aurrera egiten jarraituko du: jarduera ekonomikoa eta kalitatezko enplegua, auzoen garapen integrala, zerbitzu publikoen kalitatea, gizarte-babesa eta -sustapena eta udal-kudeaketaren kalitatea. Horren harira, Ander Añibarro herriko alkateak gogorarazi du dokumentu honen helburua "herritarrei Gobernu taldearen lan-ildoak aurkeztea" dela, "legegintzaldiko helburu estrategikoekin lotuz eta jarduera espezifikoak zehaztuz".

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea dokumentuan jasotzen diren jarduerak landu beharreko ekimenetako batzuk baino ez direla; izan ere, udal-zerbitzuek, euren ohiko jardunbidearen ondorioz, dokumentu honetan jasotzen ez diren beste proiektu eta jardura batzuk gauzatuko dituzte, eta horien berri emango zaie herritarrei, ohiko baliabideen bidez. Edonola ere, sei hilean behin, Plan

Operatiboan jasotako jarduera bakoitzaren egoeraren jarraipena egingo da, audioarrei aurrerapen- eta betetze-mailaren berri emateko.

2022ko bost ardatzak eta horien mugarri nagusiak

Jarduera ekonomikoa: industria, merkataritza eta zerbitzuak

Lehen ardatzari dagokionez, Udalak udalerrian ekonomia suspertzera eta enplegua hobetzera bideratutako proiektuak sustatzen jarraituko du. Horretarako, hauek dira funtsezko proiektuetako batzuk:

- “Audio Berrikusi” ekimenaren aktibazioa. Programa horrek merkataritza- eta ostalaritza-sektoreari lotutako sustapenak eta udal-zerbitzuei buruzko informazioa uztartzen ditu.
- “Audio Glass Hub”: beiraren sektoreko enpresekin eta hainbat erakunderekin lantaldeetan parte hartzen jarraituko da, berrikuntza- eta talentu-espazioak abian jartzeko.
- Enplegu-planak abian jartzea, 250.000 euro inguruko inbertsioarekin, laneratzeko zailtasunak dituzten 25 pertsona kontratatzeke.
- Udalerriko enpresetan Audioko langabeen kontratazioa diruz laguntzeko laguntza-lerro berria aktibatzea.
- Audion Enplegurako Mahaia abian jartzea, erronkak identifikatzeko eta enplegua hobetzeko programak martxan jartzeko.

Landa-auzoen eta -espazioen garapen integrala

Bigarren ardatzak gure auzoak eta hiriguneak eta landaguneak berroneratzea du helburu, Laudio kohesionatua, zaindua, modernoa eta mantentze egokiarekin eraikiz. Horretarako, 2022an auzoen garapen integralerako planei jarraipena emanez gauzatu beharreko proiektu nagusiak hauek dira:

- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berrikusteko prozesua hastea, 1993koa den egungo plana berritzeko.
- 2021. urteari dagozkion asfaltatzeak gauzatzea eta 2022ko asfaltatze-plan berria kontratatzea.
- Eskariaren arabera landa-taxi zerbitzua abian jartzea, landa-ingurunearen eta hirigunearen arteko lotura errazteko, adinekoentzat batez ere.
- Kultura deszentralizatzea, auzo guztietan kultur ekitaldiak egitea sustatuz.
- Laudioko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planean jasotako zenbait neurri ezartzea, hala nola eremu jakin batzuetan noranzko bakarrak martxan jartzea edo bizikleten eta ibilgailuen arteko bizikidetzari buruzko esperimentazioa.
- Eraztun Berdearen proiektua, Laudio txangozaletasun berde eta naturalerako gune gisa kokatzeko.

Kalitatezko zerbitzu eta espazio publikoak

Hirugarren ardatza kalitatezko zerbitzu publikoak ematea da, Laudioaren eta bertako herritarren beharrei buruzko etengabeko hausnarketarekin. Hona hemen 2022rako nabarmentzen diren proiektuetako batzuk:

- Saneamendu- eta hornidura-sareak hobetzea Laudioko hainbat puntutan, eta dagozkion proiektuak idaztea (Landaluze, Areta eta abarren bigarren fasea).
- Kaleak garbitzeko kontratu berria esleitzea eta hastea, garbiketen maiztasuna eta espazioak indartuz.
- Antzokia eraikitzeke obra kontratatzeke pleguak idaztea.
- Laudioko Kultur Kontseilu berria abian jartzea, eta kultur programazioa indartzea.
- Rokodromo bat instalatzea Latiorroko egungo frontoian.
- Izapideak modu autonomoan egin ahal izateko bulego elektroniko bat instalatzea udaletxean.
- Ordainketak egiteko kioskoa instalatzea, ordainagiriak eta beste ordainketa batzuk modu autonomoan ordaindu ahal izateko.

Babesa eta gizarte-garapen integralaren aldeko apustua

Laugarren ardatza Laudioko gizarte-garapenari buruzkoa da, eta gizarte ireki eta inklusiboa eraikitzea du helburu, emakumeak, gizonak, adinekoak, umeak eta kolektibo guztiak euren bizi-proiektuak gauzatzeko partaide senti daitezen. Hona hemen 2022an gauzatuko diren proiektuetako batzuk:

- Sant Rokezar-eko adinekoen Kluba handitzeko eta ekipatzeko obrak.
- Adinekoentzako funtsezko proiektuak sendotzea, hala nola Nahi ez diren Bakardadeei buruzko Eskola eta Bizi Jardueren Orientazio Zerbitzua (BJOZ-SOAV).
- Gizarte-larrialdietarako Laguntzak eta Iraunkortasun Programa indartzea.

- Umeentzako parke berri bat eraikitzea Lamuzako parkean.
- Laudioko Emakumeen Kontseilua abian jartzea. Lanerako foroa da, berdintasun-politikei buruz hausnartzeko, eta hainbat eragilek hartuko dute parte.
- Gazteen alokairurako laguntza-lerroa aktibatzea, Laudioko gazteen emantzipazioa errazteko.

Udal-kudeaketa adimenduna

Azkenik, bosgarren ardatza udal-kudeaketa hobetzea da. Horretarako, bestek beste, 2022rako proiektu hauek aurreikusten dira:

- Beste Enplegu Eskaintza Publiko baterako deialdia egitea eta gaur egun indarrean dagoena garatzea.
- Laudioko Hiri Agenda definitzeko partaidetza-prozesua abian jartzea, udalerrian epe ertainean jarraitu beharreko estrategia identifikatzeko.
- Laguntza-deialdietara proiektuak aurkezteko aukera berriak identifikatzea, Europako funtsak erakartzeari begira.
- 2023rako udal-aurrekontu berria onartzea